



COVID-19

FAMILIENTZAT INFORMAZIOA

EMERGENCIA COVID-19 LARRIALDIA

KORONABIRUSA IKASGELARA ITZULTZEA



Edozein zalantza edo sintoma baduzu, hartu temperatura ikastetxera joan baino lehen



Sintoma argiak badituzu, ez zaitetz joan ikastetxera. Isola zaitetz, eta jarri harremanetan zure osasun-zentroarekin



Erabili maskara ikastetxean zaudenean



Eskola-postuen artean 1,5 metroko tartea gorde



Garbitu itzazu eskuak sarri



Garbiketa eta desinfekzio neurriak areagotu egingo dira ikastetxe osoan (espazioak, tresnak, materialak...)

Informazio gehiago:
<http://www.euskadi.eus/hezkuntza/>

1. Familia-ikasle eta ikastetxearen arteko harremana eta lankidetzaz ezinbestekoa izango da gauden egoera honi ahalik eta hobekien aurre egin ahal izateko.
2. Ikasleek ezingo dute ikastetxera joan sukarra(>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek edo ikasleek beraiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartuko duten konpromisoa hartzen dutela.
3. Ikasle guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunetan erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituen. Badaezpada, beste bat ere eskuragarri izango dute.



du.

oso

4. Ikasle bakoitzak bere materiala izango Partekatu beharra dagoenean, ikasle bakoitzaren ardura izango da materiala erabili aurretik eta ondoren garbitzea. Horregatik, komenigarria da ikasle bakoitzak bere hidrogela izatea edozein momentutan erabili ahal izateko, ikastetxean eremu askotan eskuragarri izango duten arren.

5. Ikasle batek ikastetxean sintomak baditu, familiari jakinaraziko zaio eta ikaslearen bila etorriko da ahalik eta lasterren; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).

6. Ikasleak sintomak baditu etxean, Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko da eta familiak tutorea jakinaren gainean jarriko du. Aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio, ikastetxeak beharrezko neurriak har ditzan.

7. Ikasle batek PCR frogetan positiboa emanez gero, ez da ikastetxera etorriko eta Osasun Agintariak ezarritako berrogeialdia beteko du. Era berean, Osasun Agintariak ezarritako berrogeialdian dauden ikasleak ere berau bete artean ez dira zentzura etorriko.

8. Familiekin harremanak estua behar badu ere, momentuz, ikastetxera ez bertaratzea aholkatzen da. Harremana telefonoz eta online izatea bultzatuko da.

9. Gogoraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez. Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren webgunean:

[https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria\(euskaraz\)](https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria(euskaraz))

[https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/\(gaztelaniaz\)](https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/(gaztelaniaz))

KORONABIRUSA
TRANSMISIOA SAIHESTU
KONTAKTUAK MURRIZTU


- 1** **ESKUAK GARBITU**
Illustration of hands being washed under a faucet.
- 2** **SEGURTASUN TARTEA MANTENDU (2 m)**
Illustration of two people standing 2 meters apart.
- 3** **GUZTIEK ERABILTZEN DITUZTEN TOKIAK UKITZEA SAIHESTU**
ETA UKITUZ GERO, ESKUA GARBITU
Illustration of a hand with a red prohibition sign over it.
- 4** **TOKI PUBLIKO ITXIETARA JOATEA SAIHESTU**
SEGURTASUN TARTEA EZIN BADUZU MANTENDU, MASKARA ERABILI
Illustration of people in a public space, some wearing masks.
- 5** **ETXERA HELTZERAKOAN, GARBITU KUTSATUTA EGON DAITEKEEN GUZTIA**
Illustration of a hand holding a smartphone.
- 6** **ARRISKU-TALDEREN BATEAN BAZAUDE, KONTU HANDIZ JOKATU**
(HAURDUN DAUDEN EMAKUMEAK, NAGUSIAK, GAIXOTASUN KRONIKOREN BAT DUTEN PERTSONAK, IMMUNODEPRIMITUAK...)
Illustration of a person sitting on a couch.

HONAKO SINTOMAK IZANEZ GERO

- EZTULA** (Illustration of a person coughing)
- EZTARRIKO MINA** (Illustration of a person holding their head)
- SUKARRA 37° BAINO GEHIAGO** (Illustration of a person with a fever)
- ARNASA HARTZEKO ZAILTASUNA** (Illustration of a person breathing)
- USAINENAREN GALERA** (Illustration of a person with a red 'X' over their nose)

ISOLAMENDUA

- ETXEAN GERATU ZAITEZ.**
KUTSATUTA EGON ZAITEZKE
Illustration of a person in a room.
- ZURE OSASUN ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARRI**
Illustration of a hand holding a smartphone.



GARRAIOA

1. Ikasleek, laburbilduz, ikastetxean jarraitu beharreko oinarrizko neurriak betetzen jarraituko dute: musukoa uneoro, eskuen garbitasuna eta, ahal denean, pertsonen arteko segurtasun distantzia (1,5m) autobusa itxaroten, sartu-irteeratan...
2. Autobusean ezin da ez edan, ezta jan ere.
3. Ikasle bakoitzak eserleku jakin bat izango du, ikastetxean jakinarazi zaiena, eta bidaia guztietan errespetatuko du. Antolakuntzagatik, ikasle batzuk bi autobus erabiliko dituztenez bi zenbaki izango dituzte: bata joateko eta bestea itzultzeko.
4. Ikasleak, ahal den neurrian, herrien arabera eseriko dira.